

AZERIAREN EGIAK

Kortezubiko Matías Aranazek kontatuta 1923an

Azeria gosetu zenean, gordelekutik atera zen. Janaria aurkitzeko ibaia gurutzatu behar zuen.

Ez zuen dirurik ontzi-zainari ordaintzeko bidaia.

Ontzi-zainari esan zion hiru egi kontatu zizkiola alde batetik bestera eramatearen truke.

Mugitzen hasi bezain laster lehenengo egia esan zion ontzi-zainari:

- Ontzi-zaina entzun ezazu lehendabiziko egia: *“Ilargia argia da, baina ez egunaren beste”*.

Ontzi-zainak esan zion:

- Ondo dago.

Ibaiaren erdialdera heldu zirenean bigarren egia esan zion:

- *“Inoren ama ona da baina norberenalangorik ez”*.

- Ondo dago, - besteak erantzun.

Heldu ziren bazterrera. Orduan esan zion hirugarren egia:

- Ontzi-zaina, ontzi-zaina, *“galtza zaharrak dauzkazu. Ni bezalako asko igarotzen badituzu, berriro ere izango dituzu.”*

- Ondo dago -erantzun zion ontzi-zainak.

Joxe Miel Barandiaran

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973